

Osakidetza

Orain zugandik hurbilago
Orain WhatsAppen

Zurekin komunikatzeko modu berri bat
Osasuna hobeto zaintzeko interes sanitarioko informazioa.

Nola jaso komunikazioak WhatsApp bidez?

Zure **baimena** baizik ez dugu behar, eta aukera hauetako baten bitartez egin dezakezu:



Web-formularioa



Ahots-erantzun
interaktibodun (IVR) deia



WEB-FORMULARIOA

Baimena emateko [web-formularioan](#) sar zaitez eta honako hau egin ezazu:

1 Sartu zure telefono-zenbakia formularioan

Telefono horretan jasoko dituzu WhatsApp bidezko komunikazioak

1

2 Osatu egiaztapen-prozesua

Idatzi SMS bidez jaso duzun egiaztapen-kodea.

2

3 Kontsultatu zure baimenaren egoera

Hasieran, testu hau agertuko da: "Oraindik ez diguzu baimenik eman"

3

4 Eman iezaguzu zure baimena lauki hauek markatuta:


- Onartzen dut Osakidetza-ren komunikazioak WhatsApp bidez jasotzea
- Pribatutasun politika

4

Zure erabakia aldatu nahi duzu?

Nahi duzunean egin dezakezu. Horretarako, errepikatu prozesua eta markatu edo desmarkatu dagokion laukia.





Osakidetzak
WhatsApp bidezko
komunikazioak bidali
nahi dizkizu zenbaki
honetara, baina zure
baimena behar du
horretarako. Baimen
hori esteka honen
bidez onartu edo uka
dezakezu:
https://cloud.osasun-programak.osakidetza.eus/ValidacionTlf_WS_PRO?lan=EU

SMSrik jaso duzu?

Osakidetzak, halaber, baimen-formulariorako sarbidea emango dizu **SMS baten bidez**.

Jaso baduzu, mesedez, sartu estekan eta bete jarraibideak prozesua bukatu ahal izateko.

! OHARRA

Beste edozein SMS jasoz gero, zure datu pertsonalen eske edo guk adierazi gabeko estekekin, ez zaitez fidatu.



AHOTS-ERANTZUN INTERAKTIBODUN (IVR) DEIA

Telefono-dei labur baten bidez egin ahalko duzu. Horretan, ahots-laguntzaile batek gidatuko zaitu.



Deitu 945 00 65 00 telefonora

- ! Deia grabatu egingo da.
- ! Ahots-laguntzaileari entzun eta nahi dituzun aukerak sakatu besterik ez duzu egin behar.



Segi jarraibide hauei eta aukeratu:

1. urratsa

Zure eskubideei buruzko informazioa jaso nahi baduzu, sakatu #1 zenbakia.

2. urratsa

Zure baimena emateko eta informazioa WhatsApp bidez jasotzeko, sakatu #1 zenbakia.

3. urratsa

Informazio gehiago jaso nahi baduzu, sakatu #3 zenbakia.



Gogoan izan:

- + Informazio gehiago jaso nahi baduzu, harremanetan jarriko zaitugu agente batekin.
- + Zure baimena aldatzeko, deitu telefono-zenbaki berberera gurekin harremanetan jartzeko.



Baimena eman baduzu, baieztapen-eta ongietorri-mezu bat jasoko duzu WhatsApp bidez.

Jaso ezean, deitu 900 20 30 50 zenbakira.



Osakidetza WhatsApp-en, informatua egon modu errazean

WhatsAppekin, Osakidetzak beste urrats bat ematen du zu hobeto laguntzeko. Honen bidez, mezu esanguratsuak partekatuko ditugu behar den uneetan, eta ahalegin eta kudeaketa gehigarririk egin gabe lor dezakezun komunikabide bat eskaintzen dizugu, zure eguneroko bizitzarako pentsatuta dagoena.



Zure datuak beti babestuta



Aplikazio berriak deskargatu behar izan gabe



Beti zurekin konektatuta

